

## OREKA diru laguntzak: egitasmo egonkorak dituzten kultur elkarteentzako

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

---

### Helburua

Diru laguntza hauen helburua da jarduera programa egonkorak (Gipuzkoako kulturaren alorrean finkatuta dauden programak) dituzten irabazi asmorik gabeko kultur entitateak - egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan dutenak- diruz laguntzea.

### Honako jarduera motak sartzen dira:

- -Federazio tankerako elkarten jarduera edo egitasmoak, gutxienez Gipuzkoa eremu-tzat izanik, kulturaren edo artearen alorrekoak direnak.
- Artearen eta kulturaren esparru baten, musika, antzerkia, dan-tza, ikus-arteak, literatura, gogoeta edo kultur ondarea beste batzuren artean, lan egiten duten errotutako elkarteak.

Diruz lagungarriak diren gastuak era desberdinetako jardueri dagozkienak izan daitezke, hala nola, formazio, ikerketa, sentsibilizazio edo koordinaketa alorretakoak, nola hedapeneko jardueren antolaketa, festibalak, jardunaldiak edo lehiaketa gisakoak.. Halaber jarduera horiek aurrera eramateko beharrezko diren elkartearen funtzionamendu gastuak ere lagundu ahal izango dira.

### Ez dira onartuko honakoak:

- Beren izaeragatik edo xedeagatik Kultura Zuzendari-tza Nagusiaren jarduketa esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak.
- Diru lagun-tza izenduna xedatua dutenak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste diru lagun-tza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak.
- Aisiari, astialdiari eta gazteriarri zuzendutakoak.

### Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DPTUA.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia

## HASIERA ETA ESKAERA

---

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta eredueta sarrera](#)

### Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)